

Leioa, 2013.eko ekainaren 28an

ARRISKU PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOA: PREBENTZIO ZIRKULUAK

Lankide hori:

Arrisku psikosozialen ebaluazioaren hastapeneko emaitzen ostean, lan taldeak hiru prebentzio zirkulu antolatzea erabaki du (ezberdinak AZP eta PIIko kidegoetarako) arlo zailenak aztertu eta horietarako prebentzio neurriak proposatzearren.

Prebentzio zirkuluak dira lan talde batek bildutako langile multzoak, osasunaren kaltetan daitezkeen esposizioekin erlazioaturiko lan baldintzen inguruko gaiei buruzko kontsultak jaso eta prebentzio neurriak eztabaida ditzan, kalteok murriztu edo zeharo desagerraraztearren.

Taldeok, gehien dela, 9 pertsonak **osatuko** dituzte eta **parte hartzea borondatezkoa da**:

- pertsona bat, lan taldearen ordezkari.
- egoera kaltegarriotan ari diren zazpi langile.
- ebaluazio prozesuan aholkuak emateko ardura duen SGS enpresako teknikaria, moderatzaile gisa.

Parte hartzeko borondatea agertutakoak zazpi pertsonatatik gora badira, arriskuen ebaluazioan emaitzarik kaltegarrienak lortu dituzten lanpostuetan ari diren pertsonen artean egingo da prebentzio zirkuluetan parte hartu behar dutenen aukera. **Saioak** ez dira 2 orduetatik gorakoak izango. Saio hauek lanaldiaren barruan egingo dira. Saioetarako deiak behar besteko aurrerapenez egingo dira. **Irailean emango da prebentzio zirkuluotan parte hartzeko baldintzen inguruko informazioa.**

Saioak amaituta, **txosten** bat egingo da bertan agertutako planteamendu ezberdinak modu anonimoan laburtuz, lan taldeari emango zaiona, beronek aztertu eta lan baldintzetan egin beharreko aldaketak planteatu ditzan eta esposizio kaltegarriak murriztu daitezzen.

Informazio zabalagoa nahi izanez gero, UPV/EHUren prebentzio zerbitzuaren web gunean (<http://goo.gl/mX6uE>), edo posta elektronikoz (riesgospsicosociales@ehu.es edo arriskupsikosozialak@ehu.es) jo dezakezu lantaldearengana zure intereseko alderdiez galdetzeko.

Eskerrik asko zure laguntzarengatik. Ondo izan,

Arrisku Psikosozialen Ebaluaziorako Lantaldea

LAN INGURUNE OSASUNGARRIA IZAN DEZAGUN, PARTE HARTU!